



KODE ETIKOA

EDUKIA

1	SARRERA	1
1.1	Aplikazio-eremu objektiboa	1
1.2	Aplikazio-eremu subjektiboa	1
1.3	Kode Etikoaren funtzio integratzailea eta interpretazioa.....	1
1.4	Kode Etikoaren onartzea eta derrigorrezko betetzea	2
2	JOKAERA PROFESIONALERAKO ARAU OROKORRAK.....	2
2.1	Legea, eskubideak eta funtsezko askatasunak betetzea.	2
2.2	Aukera-berdintasunaren errespetua eta lan-segurtasunaren sustapena....	2
2.3	Pertsonen errespetua.....	3
2.4	Ustelkeria, eroskeria eta iruzurraren aurkako borroka	3
2.5	Interes-gatazkak.....	4
2.6	Gardentasuna eta leialtasuna ogasuneko agintariekiko eta funts publikoen erabilera zuzena	4
2.7	Interes-taldeen harremana.	5
2.8	Jabetza industrialaren eta jabetza intelektualaren eskubideei errespetua. 5	
2.9	Batzar, Administrazio Kontseilu, Zuzendari eta departamentu desberdinetako arduradunen eredu-jokabidea	6
2.10	Finantza-informazioaren barne-kontrola.	6
2.11	Irudi eta ospe korporatibo egokia.....	6
2.12	Intimitate-eskubidea.....	6
2.13	Informazio erreserbatua, konfidentziala eta pribilegiatuaren erabilera egokia	7
2.14	Laguntza, parte hartzea eta lankidetzak.	7
2.15	Jarrera profesional zuzena.....	8
2.16	Informazioaren berrikuntza eta babesa sustatzea.....	8
2.17	Osasun publikoaren eta ingurumenaren errespetua.	8
3	BETETZE-BATZORDEA.....	9
4	KODE ETIKOAREN INDARREAN SARTzea ETA INDARRALDIA	9

1 SARRERA

1.1 Aplikazio-eremu objektiboa

Kode etiko honen helburua (aurrerantzean “**Kode Etikoa**”) zera da: AGUAS DEL AÑARBE - AÑARBEKO URAK, SAREN baitan (aurrerantzean “**AUSA**”), etikan oinarrituko den kultura ezartzea eta kontsolidatzea bermatu eta sendotuko duten printzipioak eta jarraibideak finkatzea.

Kode Etikoa, AUSAk legea betetzeko duen konpromisoa adierazteko abiapuntu izan nahi duena.

Aldi berean, prebenituko dira ustelkeria arloko jarduketak, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren Errekuperazio, Transformazio eta Erresilientzia Planean (aurrerantzean “**PRTR**”) aurreikusten denaren arabera, zeinaren bidez PRTRaren kudeaketa-sistema konfiguratu den.

Kode Etikoaren betetzea eta interpretazioa, hala nola Iruzuraren aurkako gainontzeko barne-araudia, tresna efikaz bat da AUSAren ospearen arriskua babesteko, zeina kaltetua izan daitekeen bertan jasotzen diren terminoen balizko ez betetzeengatik.

Kode Etikoaren aplikazioak ez ditu inolaz ere urratuko finkatuak dauden lege-xedapenak; beraz, horrelako gertakizunik hauteman ezker, Kode Etikoaren edukiak egokitu beharko dira.

Lan-legeriaren arabera, Kode Etikoan xedatzen dena ez betetzeak disziplina-zehapenak ekar ditzake, edo aplikagarriak diren beste zehapenak.

1.2 Aplikazio-eremu subjektiboa

Kode Etikoak AUSAren funtsezko printzipioak adierazten ditu, hura osatzen duten pertsona guztiengan du eragina, kontuan hartu gabe: kontratuaren modalitatea, posizio hierarkikoa edo funtzionala, batez ere, Batzarreko eta Administrazio Kontseiluko kideak, zuzendariak eta departamentu ezberdinetako arduradunak. Aurrerantzean, haiek adieraziko dira modu banakakoan “Profesional” bezala eta talde moduan “Profesionalak” bezala.

Beraz, edozein Profesionalek kontuan izango ditu eta egokituko da, une oro, Kode Etikoaren xedapenetara.

Aldi berean, Kode Etiko hau aplikagarri zaie AUSAk kontratatzen dituen enpresei eta profesionalei, beti ere kontratatzen den jarduera haren jarduerarentzat sentikorra eta garrantzitsua denean.

1.3 Kode Etikoaren funtzio integratzailea eta interpretazioa

Kode Etikoaren helburua ez da AUSAren ohiko jardueran ager daitezkeen gertakizun guztiak azaldu eta erregulatzea, baizik eta irizpide argi batzuk finkatzea da helburua, Profesionalek jokoera irakastea eta, kasua balitz, lanean izan ditzaketen zalantzak argitzea.

Kode Etiko honen aplikazioan izan daitezkeen edozein zalantza, eta Iruzuraren aurkako Sistemako edozein agiriren aurrean izan daitezkeena, hierarkian bere gainean dagoenari eta/edo Betetze Batzordeari-zuzendu beharko zaio salaketa-kanalaren bidez. Borondate oneko informatzaileak ez duela errepresaliarik jasango bermatzen da, eta bermatzen da baita ere, une oro, haren

konfidentzialtasuna.

1.4 Kode Etikoaren onartzea eta derrigorrezko betetzea

AUSAko Profesional guztiak ezagutu, onartu eta bete beharko dute Kode Etikoaren edukia, hala nola hura ezagutu eta ulertzeko behar den prestakuntza egin beharko dute; horrela, kodeak bere ondorio guztiak hedatu ditzan, agiri hau eta lruzuraren aurkako Sistemako gainontzeko agiriak nahitaez bete beharreko arauak izango dira.

Profesionalak derrigortuta daude Kode Etikoa betetzera, jasotzen dituen balore eta printzipioak errespetatuz, eta bertan zehazten diren jokabide-jarraibideak kontuan izango dituzte.

Hortaz, Profesionalak, bereziki euren kargura beste profesional batzuk dituztenak, Kode Etikoa bete beharko dute eta betetzen dela zaindu; beti ere, kodean zehazten diren jarduketak, jarduerak eta ekintzak sustatuz.

AUSAk Kode Etikoa jakinarazi eta zabalduko du bere Profesionalen artean bakoitzari haren kopia bat eskuragarri jarritz. Edozein kasutan, Profesional guztiak euren gain hartu beharko dute hura betetzearen konpromezua.

2 JOKAERA PROFESIONALERAKO ARAU OROKORRAK

AUSAko Profesionalek Kode Etikoak zehazten dituen ondorengo jokaera araua orokorrak bete beharko ditu:

2.1 Legea, eskubideak eta funtsezko askatasunak betetzea.

- AUSAk errespetatuko ditu legea, giza-eskubideak eta askatasun zibilak eta haien esparru arautzailea.
- AUSAko Profesionalek jakitun behar dute izan euren lanean eragina duten legeez. Ildo honetan, AUSAk Profesionalei emango dizkie behar dituzten baliabideak euren betekizunentzat garrantzitsuak diren barne- eta kanpo-erregulazioen ezagutza bermatzeko.
- Profesionalek ezingo diote hirugarren bati lagundu legeak nahita hausten, edo legezketasun-printzipioaren aurka joan daitekeen edozein ekintzatan parte hartu.

2.2 Aukera-berdintasunaren errespetua eta lan-segurtasunaren sustapena

- AUSAk bermatzen du bere Profesionalak hautatzeko politikan eta praktikan, kontratazioan eta ordainsarrietan, lan-baldintzetan edo prestakuntza eta promozioan, soilik, meritu eta gaitasun irizpideak erabiltzen dituela; edozein kasutan, errespetatuz gizonezkoen eta emakumezkoen arteko tratatuak eskatzen duen berdintasun-printzipioa, bermatuz aldi berean ez dela inor baztertuko bere arraza, sexu, ideologia, nazionalitate, ezgaitasun, sinesmen edo beste edozein baldintza pertsonal, fisiko edo sozialarengatik.
- Era berean, AUSAk bere Profesionalen prestakuntza egokia bermatzen dituzten politikak garatzen ditu, horien maila profesionala eta pertsonala garatzen lagunduz, errespetuzko lan-giroa eta edozein motako indarkeria, abusu edo jokabide iraingarri baztertzen dituen

lan-giroa sustatuz, batez ere edozein motako eraso edo abusu fisiko, sexual, psikologiko edo ahozkoa prebenitzeko xedearekin.

- Halaber, AUSAk promozionatu eta modu aktiboan aplikatzen du lan-arriskuen gaietarako politika egoki bat, Profesional guztiei jakinarazten diena, hala nola haren betetze eraginkorra eta zaintza. Hortaz, AUSAko Profesionalak behartuta daude laneko segurtasunari eta osasunari buruzko arauak betetzera, lan-arriskuak ahalik eta gehien prebenitu eta gutxitzearen.

2.3 Pertsoneri errespetua.

- AUSAk bere gain hartzen du bere enpresa- eta profesional-jarduerak indarrean dagoen legeriaren arabera garatzeko konpromisoa, jokabide etiko altu batekin. Zehazki, AUSAk arbuizatzen du edozein lan behartua edo derrigorrezkoa eta haurren lana.
- Profesionalen arteko harremana errespetuzkoa izan behar du, lan-giroa osasuntsua eta segurua izan dadin.
- AUSAk ez du erabiliko lege-haustek egitearen justifikazio modura, lege-haustek zabalduak daudela edo agintariak haiek onartzen dituztela argudiatuz.
- Profesional baten legearen aurkako jarduketak edo zentzu horretan emandako jarraibide edo aginduek ez diote erantzukizunik kentzen jarraibide edo agindu horiek jarraituz diharduen Profesionalari.
- Ez da obeditu behar araudi juridikoaren aurka doan edozein agindu.
- Profesionalek ez diote hirugarrenei lagunduko nahita edozein lege urratzen, eta ez dute parte hartuko legalitate-printzipioaren errespetua arriskuan jartzen duen jarduketetan.

2.4 Ustelkeria, eroskeria eta iruzurraren aurkako borroka

- Ustelkeriaren aurkako politikaren arabera, AUSA irmo azaltzen da enpresek edo banakakoek egin dezaketen edozein ustelkeria, iruzur eta eroskeria egintzen aurka.
- Mota honetako egoeren aurrean arrisku handia, ertaina edo baxua duten Profesionalek barne-araudia ezagutu eta bete beharko dute, AUSAk hura eskuragarri jarriko duelarik, haiei buruzko prestakuntza eta ezagutza erraztuz.
- Hirugarren batek ordainketa, komisio, opari edo ordainsaririk eskatu ezker Profesionalek horren berri eman beharko diote Betetze-Batzordeari.
- AUSAk zaintzen du bere jardueraren garapenean Legea errespetatu dadin eta ustelkeriaren aurka borroka dadin. Hortaz, AUSAk arbuizatzen ditu entitate pribatuek, agintariak edo funtzionario publikoek gauzatutako ekintza ustel edo desleialtan oinarria duten edozein jarduketa, akordio edo kontzesio. Horren harira, bere konpromiso irmoa adierazten du irregulartzat har daitezkeen ondorengo praktikak egitearen aurka: kapitalen zuriketa, funtzionario-eroskeria, prebarikazio edo influentzia-trafikoa, besteak beste, bai hornitzaileekin bai Administrazio Publikoarekin duen harremanetan.

- Hortaz, AUSAko Profesionalek ezingo dute, zuzenean edo beste pertsona baten bidez, justifikaziorik ez duten abantaila edo onurarik eskaini edo eman, edo eskatu edo onartu, non helburua den onura bat lortu (orain edo etorkizunean) AUSArentzat edo norberarentzat edo hirugarren batentzat. Gehiago zehaztuz, ezingo dute eman edo jaso inolako eroskeria edo komisiorik, tartean funtzionario edo langile publiko (espainol edo atzerritar), enpresetako langileak, talde politikoak, agintariak, hiritarrak edo hornitzaileak daudenean. Eroskeria-egintzak, bereziki debekatuak daudenak, jasotzen dute: egokia ez den edozein abantaila eskaintzea edo agintzea (zuzena edo zeharkakoa), hori estaltzeko edozein tresna, hala nola influentzia-trafikoa.
- Ildo berean, AUSAko Profesionalek ez dute hitzik emango, ezta oparirik edo konpentsaziorik entregatuko, ondorengo helburuak lortzeko: administrazio organoetan edo organo judicial edo politikoetan izapidetzeak arindu edo emaitzan eragina izateko. Opari edo beste motako ordainketei dagokionez, horiek debekatuta daude, salbuetsita daudelarik tokiko ohituren arabera adeitasunezkoak direnak, Oparien Protokoloan zehazten denaren arabera.

2.5 Interes-gatazkak

- Interes-gatazkak sortzen dira interes pertsonalak eta AUSAren interesak kontrakoak direnean edo talka egiten dutenean, betebeharrak eta erantzukizun profesionalak betetzea oztopatzen dutenean edo transakzio edo eragiketa ekonomikoan pertsona sartuta dagoenean. Interes pertsonal edo pribatutzat jotzen dira, besteren konturako langileen kasuan honen senideentzat edo lotura duen hirugarrenentzat abantaila profesional edo ondare-abantailak dituztenak.
- AUSAk bere Profesionalekiko harremana leialtasunean oinarritzen du, eta ez du interes-gatazkarik onartzen horien interesen eta AUSAk garatzen duen jardueraren artean.
- Balizko interes-gatazkak zaindu eta prebenitzeko behar diren kontrolak sustatuko ditu AUSAk.
- Profesionalek saihestuko dituzte balizko edozein interes-gatazka egoerak, Profesional baten interes pertsonala eta AUSArena modu zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean. Kasu horretan, Profesionalak hierarkian gorago duen arduradunari jakinarazi beharko dio egoera, Betetze-Batzordeak ezagutu dezan eta gatazka-egoerari amaiera jartzeko neurriak har ditzan, eta horrela Interes-Gatazkak Kudeatzeko Politikan zehazten dena bete.

2.6 Gardentasuna eta leialtasuna ogasuneko agintariekiko eta funts publikoen erabilera zuzena

- Zerga gaietan jardunbide egokiak gauzatzeko konpromisoa du AUSAk, une oro zerga-araubidea betez, hala nola Gipuzkoako Forua Aldundiarekin harreman egokia mantentzea, legez kanpo dauden onurak lortzea debekatuz, hala nola, zergak, atxikitako zenbatekoak edo atxikiak izan behar zutenak ez ordaintzea. Debekatua dago, baita ere, espezieetan ordainsariengatik edozein diru-sarrerara, edo indarrean dauden arauetan zehaztuta dauden kontabilitateko obligazioak ez betetzea, edo liburuak eta erregistroak ez betetzea.
- Ildo berean, Administrazio Publikoaren diru-laguntzak, desgrabazioak edo laguntzak jaso ezker, lortutako funtsak modu egokian erabiliko direla bermatzen du AUSAk.

2.7 Interes-taldeekiko harremana.

- AUSAren interes-taldea ondorengo Taldeek osatzen dute: AUSAren jarduerarekin, modu zuzenean edo zeharka, harremana duten pertsonak, erakundeak, enpresak, instituzioak edo kolektiboak.
- AUSAk berarekin lotura duten Interes-Taldeekin harremana mantentzeko konpromezua hartzen du, legalitatea betetzean eta elkarren arteko errespetuan eta konfiantzan oinarrituz.
- Zehazki, AUSAk bere profesionalekin duen konpromezua zera da: informazio gardena, argia, benetakoa eta osoa ematea, AUSAren martxan, une oro, balio iraunkorra sortzen dela bermatuz.
- Bestalde, AUSAk bere hornitzaileekin duen konpromezua zera da: konfiantzan eta informazio gardenean oinarritutako harremana erraztea, hornitzaileak eta kontratistak hautatzerakoan independentzia eta objektibitatea izango dira jarraibide, eta kaudimen, egokitasun teknikoa, kalitatea, prezioa eta gizartearen interesen defentsan oinarrituak, eta hornitzaileek Kode Etikoaren edukiarekin bat egin beharko dutelarik.
- Azkenik, Administrazio Publikoari dagokionez, AUSAren jokabidea beti izango da haren erabateko errespetua, beti ere legalitatea betetzea helburu duela, Agintaritzarekin lankidetzan, batez ere Euskal Herriko Autonomia Erkidegoarekin, bere eginkizunak burutuz eta beti ere AUSAren eta Administrazio Publikoaren arteko harreman iraunkorrean faborezko trataturik eman dezakeen edozein zirikada, opari edo dohaintza saihestuz.

2.8 Jabetza industrialaren eta jabetza intelektualaren eskubideei errespetua.

- AUSAk Jabetza Intelektualaren eta Industrialaren eskubideak errespetatu eta defendatzen ditu, berari dagozkionak edo hirugarrenei dagozkionak.
- Bere titulartasunekoak diren Jabetza Intelektuala eta Industrialaren eskubideak babesteko edo legez emanak izan zaizkion eskubideak babesteko helburuarekin, edo hirugarrenei dagozkien eskubideak babesteko, AUSAko Profesionalek debekatua dituzte ondorengo jokabideak:
 - ✓ Hirugarren erakunde baten ikurra (marka) berbera edo antzekoa erreproduzitu, imitatu, aldatu eta usurpatzea, (erregistratuta dagoen Jabetza Industrialaren eskubidea duten antzeko produktuak, zerbitzuak, jarduerak edo establezimenduak bereizteko), erregistratuta dagoen eskubidearen titularren baimenik izan gabe.
 - ✓ Patenteekin babestuta dauden prozedurak edo emaitzak inportatu, eduki, erabili, eskaini edo komertzioan sartzea, titularren baimenik gabe.
 - ✓ Egile-eskubideak dituen literatura-lana banatu, kopiatu, erreproduzitu edo jendaurrean komunikatzea, Jabetza Intelektualaren eskubideen titularren baimenik gabe.
 - ✓

2.9 Batzar, Administrazio Kontseilu, Zuzendari eta departamentu desberdinetako arduradunen eredu-zko jokabidea

- Batzar, Administrazio Kontseilu, Zuzendari eta departamentu desberdinetako arduradunak erreferentziazko pertsonak eta profesionalak izan behar dute Profesionalentzat, euren eguneroko jokabidean integritatearen eta betetzearen kultura sustatuz; une oro AUSAk bereak egiten dituen printzipio eta baloreen eredu izanez, hala nola Kode Etiko honen bidez bere gain hartzen dituen konpromiso guztien eredu.
- Aldi berean, egiaztatu beharko dute Profesional guztiek egin dutela Iruzuraren Aurkako Sistemari buruzko prestakuntza, eta bertan irakatsitakoa ulertu eta barneratu dutela.
- Bestalde, Kode Etikoari buruz Profesionalek izan dezaketen edozein zalantza edo kezka argitzen lagunduko diete Betetze-Batzordearen laguntzarekin, hala nola Iruzuraren Aurkako Sistema osatzen duten gainontzeko agiriei buruz; beti ere, legearen eta Kode Etikoaren aurkako jarraibiderik eman gabe.

2.10 Finantza-informazioaren barne-kontrola.

- AUSAren ekonomia-finantza informazioak zintzoki islatuko du bere errealitate ekonomikoa, finantza- eta ondare-errealitatea, bat eginez, beti ere, onartzen diren kontabilitateko printzipioekin eta aplikagarri diren finantza-informazioaren nazioarteko arauekin. Helburu horrekin, Profesionalek ez dute ezkutatu edo desitxuratuko kontabilitateko erregistroen eta txostenen informazioa, beti ere osoa, zehatza eta egiazkoa izango dena.
- Beraz, AUSAk ahalik eta arreta handiena jarriko du bere jardunean, beti ere jasotzen dituen funtsen edo ordainketen legezko jatorria bermatuko duelarik, kapital zuriketa eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko xedearekin.

2.11 Irudi eta ospe korporatibo egokia.

- AUSAk bere irudi instituzionala eta ospea aktibo gisa ditu, ezinbestekoak bere Interes-Taldearen konfiantza mantentzeko.
- Hortaz, AUSAko Profesionalek derrigortuta daude bere jarduketa profesional guztietan enpresaren irudia eta ospea babesteko ahal duten kontu handiena jartzera, hura zuzenean edo zeharka kaltetu dezakeen edozein jokabide saihesteko.

2.12 Intimitate-eskubidea.

- AUSAk betetzen du Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen legeria bere langile, bezero, hornitzaile edo hautaketa-prozesuetako hautagaiekin duen harremanetan. Beraz AUSAk datuak modu egokian kontserbatuko ditu, baimenduta dauden helburuetarako erabiliz, eta ez ditu zabalduko interesatuaren baimenik gabe edo legeak derrigortuta hori egitera behartuta egon ezker.
- Profesionalen konpromisoa da hedabideen, sistema informatikoen eta beren eskura duten edozein baliabideren erabilera arduratsua egitea, horretarako ezarrita dauden politikak eta irizpideak jarraituz.
- AUSAk bermatzen du ez dituela zabalduko bere profesionalen datu pertsonalak,

salbuespen hauekin: interesatuen baimena duelako eta legeak horretara behartzen duen kasuetan, edo ebazpen judizialak edo administratiboak betetzeko denean. Horren harira, beren jarduerarengatik beste profesional edo enpresa batzuen datu pertsonak erabiltzen dituzten Profesionalek konprometitzen dira, idatziz, datu horien konfidentziasuna gordetzera.

- Profesionalen datu pertsonalak ezingo dira inolaz ere erabili legeak finkatzen dituen helburuetara edo kontratuan aurreikusten diren helburuetara ez bada.

2.13 Informazio erreserbatua, konfidentziala eta pribilegiatuaren erabilera egokia.

- AUSArentzat informazioa eta ezagutza dira bere aktibo baliotsuenak, eta babes berezia izan behar dutela irizten du.
- AUSAren jabetzakoa den informazioa eta/edo AUSAren arduraren pean utzi dena orokorrean informazio erreserbatua eta konfidentziala dela irizten da, eta sekretu profesionalaren pean egongo da. Edukia ez zaie hirugarrenei emango, AUSAk espresuki baimentzen ez duen bitartean, edo legeak horrela eskatuko balu, edo ebazpen judiziala edo administratiboa betetzeko ez bada.
- AUSAren eta bere profesional guztien erantzukizuna da informazio erreserbatua eta konfidentziala babesteko behar diren neurriak jartzea, barne- edo kanpo-arriskuak ekiditeko, eta informazio horretara baimenik gabe iristea, hura manipulatzeko edo ezabatzea (bai nahita bai ustekabean). Helburu horrekin, AUSAko Profesionalek konfidentziasuna gordeko dute euren lanaren edukari dagokionez hirugarrenekin duten harremanetan, hala egingo ez balute zigorra jasoko lukete.

2.14 Laguntza, parte hartzea eta lankidetzeta.

- AUSAk laguntza, partehartzea eta lankidetzeta giroa sustatzen du, bere Profesionalek gaitasun eta baliabide guztiak egokiago eta hobeto aprobetxatzen laguntzen duena.
- Profesionalek euren artean lankidetzan jardungo dute, AUSAren helburuak eta interesak lortzen lagunduko duten euren ezagutzak eta baliabideak eskuragarri jarritz, modu efizientean lan eginez eta AUSAk euren eskura jartzen dituen baliabideak ondo aprobetxatuz eta erabilera egokia emanez.
- Ildo honetan, AUSAk bere Profesionalen eskura jarriko ditu baliabideak eta bitartekoak jardura garatu dezaten. Profesionalek baliabide horiek modu egokian erabiliko dituzte, eta helburu horrekin ondorengo arauak jarraituko dituzte:
 - ✓ AUSAk eskura jartzen dizkion bulegoak, ekipo informatikoak, altzairuak eta bestelako materialak errespetatu eta zainduko dira.
 - ✓ Profesionalen eskura jarritako baliabide eta bitartekoak modu arduratsuan eta arretaz erabiliko dira.
 - ✓ Edozein motako aktibo edo jabetzen erabilerak edo gastuak bi printzipio hauek bete behar dituzte: beharra eta austeritatea.
 - ✓ Lan-bidaiak modu egokian kudeatuko dira, gastuak minimoak izango direla

bermatuz eta beti ere indarrean dauden prozedura eta araudien arabera.

- ✓ AUSAren balioa murriztuko duten praktikak, jarduerak eta gastuak saihestuko dira.

2.15 Jarrera profesional zuzena.

- AUSAko Profesionalek indarrean dagoen legeria zorrozki beteko dute eta euren jardura printzipio hauetara egokituko dute: integritatea, gardentasuna, leialtasuna, fede ona eta arbitrariotasunaren debekua, euren jarreraren irizpide etiko eta moral handiak jarraituz, eta lan profesionala modu zuzen, zintzo, arretatsu, arduratsu, neutral eta efizientean gauzatuko dute.
- Profesional guztiak behartuta daude hierarkian bere gainean dagoenari eta/edo, kasua balitz, Betetze-Batzordeari jakinaraztera, Profesionalaren eginkizunak gauzatzean eragina izan dezakeen zehapen izaera duen prozedura judicial, penal edo administratibo batean ikertua, erruztatua edo akusatua badago. AUSAk kasuak eskatzen dituen disziplina-neurriak eta/edo zehapenak ezarriko ditu.
- Azkenik, AUSAko Profesionalen sare sozial, foro edo blogetan izan dezaken sortze, partaidetza, parte hartzea edo lankidetzatza, eta bertan egiten dituen adierazpenak modu pertsonalean egiten direla argi utzi beharko da. Debekatua dago aipatutako kasu horietan AUSAren izenean jardutea. Adierazpenak AUSAko profesional gisa egiten badira, modu ordenatu eta koordinatuan egin beharko dira, aurrez hierarkian gorago duenarekin haien egokitasuna egiaztatuz, beti ere, AUSAri buruzko edozein informazio komunikabideen aurrean sekretua eta konfidentzialtasuna gordez.

2.16 Informazioaren berrikuntza eta babesa sustatzea.

- Egungo enpresa-kudeaketarako eta garatzen duen jardura modu hobereanean emateko berrikuntza funtsezko balioa dela irizten du AUSAk. Ondorioz bere prozedurak etengabe hobetzea sustatzen du, bere jardueran sortzen diren datuak, informazioa eta ezagutza erabat babestuak daudela bermatuz.
- Hori dela-eta, Profesionalek eskura duten informazioa eta ezagutza babestu eta zainduko dute, eta soilik erabiliko dute euren betekizunak zuzen egiteko behar dutena, erantzukizuna, efizientzia eta jardura profesionalaren inguruarekin egokia izango den jarrerarekin, indarrean dauden baimen-prozedurak betez.

2.17 Osasun publikoarekiko eta ingurumenarekiko errespetua.

- AUSAk errespetatzen du osasun publikoari eta ingurumenari buruzko legeria. Aldi berean, osasun publikoarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten balizko gertaeren aurrean babes- eta hobekuntza-prozedurak ezarriak ditu, eremu horiek babesten dituzten izaera orokorra duten legeak eta beste xedapenak urratzea ekiditeko xedearekin.
- Profesionalek ingurumenaren babesa zainduko dute modu efikaz eta etengabe eguneroko jardueran, AUSAk emandako jarraibideak betez, hala nola gai honi dagozkion kudeaketa-estandarrik.

3 BETETZE-BATZORDEA

Betetze-Batzordearen zeregina da Kode Etikoa behar bezala betetzen dela zaintzea, hala nola Iruzzurraren aurkako Sistema osatzen duten gainontzeko agiriak, AUSAko Profesionalek haien ezagutza, hedapena eta ulertzea bultzatuz; hala nola, haien berrikustea, gutxienez urtean behin, sustatuz. Eta gertaerek horrela eskatuko balute haiek eguneratu egin beharko dira.

Betetze-Batzordearen eskumena izango da, baita ere, balizko jokaera irregularrak eta Kode Etikoak jasotzen dituen printzipioekin bat ez datozenak ikertzea, dagokien bidea emanaz eta, kasua balitz, bidezkoak diren lan-zehapenak aplikatuz, araudiak aurreikusten duenaren arabera.

Profesional batek jakiten badu edo arrazoizko zantzuak baditu jarduketa ilegalak edo Kode Etikoaren aurkakoak egiten ari direla, derrigortuta egongo da horiek jakinaraztera Salaketan Kanalaren bidez, Iruzzurraren aurkako Sistemari jasota dauden Barne Informaziorako Sistema Erabiltzeko Arauen arabera.

Salaketa jartzen duen pertsonaren identitatea informazio konfidentziala izango da, beraz ezingo da inolako disziplina-neurririk hartu, ez zuzen ez zeharka, salaketa jartzeagatik, indarrean dagoen araudiaren arabera salatua edo salatuak izan direnen eskubideen kalterik gabe. Egiaztatuko balitz salatzaileak edo berarekin harremana duen edozein pertsonak (lankide, senide, lana egiten duen pertsona juridiko edo lan-esparruan edozein harreman duen pertsonak) errepresaliarik jaso duela, dagokion ikerketari ekingo zaio eta horien egileak zigortuak izango dira.

Aldi berean, Betetze-Batzordean jasotzen diren jakinarazpen guztiak konfidentziasunez tratatuko dira, dagokion agintaritzari juridiko edo administratibori jakinarazteko obligazioaren kalterik gabe.

Betetze-Batzordeak urtero txosten bat egingo du Kode Etikoa betetzeari buruz, eta txosten horren arabera Kode Etikoan egin beharreko aldaketak edo eguneratzeak AUSAk egingo ditu.

4 KODE ETIKOAREN INDARREAN SARTZEA ETA INDARRALDIA

AGUAS DEL AÑARBE – AÑARBEKO URAK, SAren Administrazio Kontseiluak 2023ko uztailaren 28an onartu zuen Kode Etikoa. Berehala sartuko da indarrean eta aldaketarik egiten ez den bitartean erabat indarrean egongo da.